

KBIZ

beaz magazine

3. Zk

Enpresa-belaunaldi berria Bizkaian:

Etorkizuneko proiektuak gidatzeko konpromisoa, fokua eta laguntza



EDITORIALA

Gazteen lidergoa Bizkaian

K **BIZ**en edizio honetan aztergai dugu helburu argi batekin enpresak sortzen ari diren Bizkaiko gazteen olatu berria; enpresa horien artean daude, esaterako, **Bikaine**, **Galde Analytics** eta **Bioinnovative Solutions**.

Bikaineko Esther Merinoren kasuan, kirol-arloan elikadura-osagarriak hartzeko deserosotasunaz ohartzean bururatu zitzaion ideia, eta horrek formatu sinpleagoak eskaintzera bultzatu zuen. **Galdeko Beñat Galdósek** —ikusita enpresetan sistemek argitasun faltagatik egiten zutela porrot, ez arazo tekniko batengatik—, enpresek beren datuen kontrola izatea bilatzen zuen. Azkenik, **Bioinnovative Solutionseko Margarita Arenasen** ustez, berritasunaren funtsa da erronka konplexuei hainbat arlotatik heltzea (I+G, teknologiak, eragiketak), ikuspegi tradizionalen mende egon gabe.

Belaunaldi horren arabera, gazte hasteak zenbait abantaila garrantzitsu ditu. Abantaila nagusia da arriskuarekiko erreparatu gutxiago izatea eta aldaketara egokitzeko gaitasun handia izatea. **Esther Merinok** azpimarratu du ikasteko kurba biziari aurre egiteko beharrezkoa dela lanerako gaitasun handia eta energia izatea. **Beñat Galdósek** gaineratu du ziurgabetasunean murgilduta jaio zirela eta hori lagungarria izan dela arin ikasteko eta aldatzeko. Pentsamolde horrek arlo guztiak aztertzea ahalbidetzen du, hala nola arlo juridikoa eta teknologikoa; hala, **Margarita Arenasek** nabarmendu du bere printzipioei jarraikiz eta rol bakarria izan gabe lan egiteko askatasuna. Gainera, lotura pertsonal handirik gabe hasteak, probatzeko eta huts egiteko tarte gehigarria ematen die.

Hala ere, zailtasun argiak daude. Oztoporik handiena **sinesgarritasuna** da. Hogeitaka urterekin, sarritan, esperientzia gutxiko pertsonatzat dituzte erakunde handiek eta ETE tradizionalak. Ondorioz, hasieratik daude behartuta emaitza sendoak frogatzera eta ez dute akatsak egiteko tarterik. Oro har, esperientziarik ezak berekin dakar akatsak egitea, negoziazioa edo baliabideen kudeaketa bezalako arloetan ezjakintasan eraginda. Oreka da giltzarri: batetik, umilak izan behar gara laguntza eskatzeko eta ekarpenak egiten dituzten pertsonen inguratzeko; bestetik, ausartak izan behar gara erabaki zailak hartzeko eta aurrera egiten jarraitzeko.

Beste gazte batzuei helarazi nahi izan dieten mezua argia da: hasteko, ez dago zertan itxaron behar dena konponduta izan arte, argitasuna lanarekin baitator. Ekiteko arrazoia ez da soilik “askatasuna” izan behar, baizik eta benetan konpondu nahi den arazo bat aurkitzea, erantzukizun hori bere gain hartuz. Aholku hauek ere egin dituzte: hasieratik hitz egitea bezero izan daitezkeen pertsonekin, ideia baliagarria ote den egiaztatzea dirua inbertitu aurretik, eta selektiboak izatea lankidetzari dagokionez. Talentua lagungarria da, baina proiektu batek funtzionatu dezan ezinbesteko dira: konstantzia, ondo egindako lana, laguntza eta aholkularitza.



Informazio gehiago
nahi izanez gero,
mesedez ikusi

beaz.bizkaia.eus

Aurkituko gaituzu:



Sabino Arana, 8
48013 Bilbao
Tel.: 944 395 622

beaz@bizkaia.eus

KBIZ

AURKIBIDEA

04

Bikaine

Gozagarri den kirol
suplementazioa.

10

Galde Analytics

Datuak aktibo estrategiko
bihurtzeko artea, denbora
errekorrean.

16

Bioinnovative Solutions

Mikroalgen iraultza
jasangarria.

**Erredakzioa
eta Argazkia**
Mikeldi Donibane

Argitaratzailea
Beaz

Copyrighta
© KBIZ, 2025.
Eskubide guztiak
erreserbatuta.

Inprimaketa
Gráficas Uncilla



Bikaine

Gozagarri den kirol suplementazioa

Kirol-arloko elikadura-osagarriak sinplifikatzeko xedearekin sortu zen **Bikaine**; hala, ebidentzia zientifikoan oinarritutako irtenbideak eskaintzen ditu, formatu eroso eta atseginetan. Helburua argia da: kirolariei laguntzea beren ohiturari eusten eta errendimendua hobetzen.

Merkaturatu duen lehen produktua **kreatina monohidratozko gominolak** dira. Babes zientifiko handiena duten elikadura-osagarrietako bat da. Indarra, errendimendua eta errekupeazioa hobetzen laguntzeko diseinatu da, eta gominolak alternatiba eraginkorra dira hura formatu tradizionalan —hauts edo pastillatan, alegia— hartu nahi ez dutenentzat.

Proiektuaren estrategia komertziala bi ildo paralelotan gauzatzen da: **B2C**, hau da, salmenta zuzena online dendaren bitartez (bikaine.com); eta **B2B**, hots, lankidetzan arituz bezeroei produktu bereizgarri jakin bat eskaini nahi dieten gimnasioekin, CrossFiteko boxekin eta entrenamendu-estudioekin.

Esther Merino Allende CEOak esan digun bezala, “proiektua kolaboratzaileen sare batek babesten du, honako hauek barne hartzen dituena: elikadura-osagarrietan eta I+G+b-n esperientzia duten hornitzaileak, kiroleko profesionalak, marketineko espezialistak nahiz negozio-aholkulariak”.

ARAZO PERTSONALETIK MERKATUA BALIOZKOTZERA

Arazo pertsonal batek eta merkatu-azterketa sakon bat egitean sortu zen Bikaine.

“Entrenatzen ari nintzela kreatina hartzen nuen, baina askotan ahaztu egiten zitzaidan. Zaporeek ez ninduten konbentzitzen eta kosta egiten zitzaidan hauts-erako elikadura-osagarria hartzeko ohitura hartzea. Banekien ondo zetorkidala, baina kosta egiten zitzaidan egunerokoan mantentzea”, azaldu du Estherrek.

Inflexio-puntua duela urtebete izan zen, boxeoan entrenatzeko Kubara egindako

“PROIEKTUAK KIROL-PROFESIONALAK, MARKETINEKO ESPEZIALISTAK, NEGOZIO-AHOLKULARIAK ETA HORNITZAILEAK DITU OINARRI”.



bidaian. Goi-errendimenduko atletekin bizi izan zen bertan. *“Elikadura-osagarriak hartzeko zeukaten ohiturari buruz galdetzen hasi nintzen, eta askok gauza bera esan zidaten: formatua ez zitzaien gustatzen, zail egiten zitzaien horri eustea, eta ados zeuden esatean askoz ere praktikoagoa izango litzatekeela osagarria gominola-formatuan hartzea. Orduantxe ulertu nuen ez zela bakarrik ‘nire arazoa’, oso profil desberdinetan errepikatzen zen zailtasuna baitzen”.*

Aldi berean, ohartu nintzen gominola-formatuak arrakasta nabarmena

zeukala jada beste kategoriatzat hartzen, hala nola bitaminetan, ongizatean eta loan.

BIKAINA JATORRIA ETA FILOSOFIA

Bikaine, beraz, honako hauek uztartzean sortu zen: elikadura-osagarriak hartzean sentitutako deserosotasunaren esperientzia pertsonala; kreatinaren erabilera babesten duen ebidentzia zientifiko sendoa; eta atletek, **talde teknikoak eta kirol-arloko medikuek** beste formatu baten beharra balioztatu izana.

Uztartze hori hiru zutabe negoziatzinatan oinarritzen da: **Zientzia:** Ikerketek babestutako osagai eta dosiekin soilik lan egitea, formula gardenak, trazabilitatea eta kalitate kontrol zorrotza lehenetsiz, atletak jakin dezan zehazki



zer eta zergatik ari den kontsumitzen.

Atxikidura: Kreatinazko gominolekin hasi baziren ere, marka ez du formatu horrek bakarrik definitzen, baizik eta egunero hartzeko “gogoia ematen duten” produktuak sortzeko

Bikaine

BIKAINA

BIC Bizkaia Ezkerraldea

Altos Hornos de Vizcaya etorbidea 33
48901 BARAKALDO (Bizkaia)



*Informazio gehiago
hemen aurki dezakezu:*



helburuak, konstantzia erraztuz.

Errendimendua:

Entrenamenduaren —pre, intra eta post— barruan rol zehatzei erantzuten dieten ildoak garatzea, berariazko beharrak betez (esaterako, potentzia eta ikuspegia areagotzea, hidratazioari laguntzea edo indarra eta errekupeazioa hobetzea).

**BIC BIZKAIA
EZKERRALDEAREN
BULTZADA**

BIC Bizkaia Ezkerraldea

inkubagailuarekin bat egin du, honako hauek eskaintzen dituelako: babes estrategikoa, prestakuntza baliagarriak,

ekitaldietan parte hartzea, harremanak eta laguntza finantzaketa bezalako funtsezko gaietan; halaber, aukera ematen die proiektua kontrastatzeko dagoeneko antzeko etapetatik igaro diren pertsonekin edo pixka bat aurreratuago daudenekin, eta horrek lagundu egiten du akatsak prebenitzen eta datorrena aurreratzen.

Barakaldoko **Ilgner**

inkubagailuak espazio fisikoa eta ekosistema bat eskaintzen ditu, bertan komunitate eta sare bat dago. *“Zentzuzkoa da Bikaine bulego bat ez ezik, testuingurua, babes eta aukerak ere ematen dizkizuten leku batean garatzea”*, ziurtatu du Esther Merino Allendek;

eta berretsi du kudeaketan proiektu berritzaileak laguntzen urteak daramatzan eta ekintzaileen benetako beharrak oso ondo ulertzen dituen talde bat dagoela. Lehenengo egunetik laguntza eta aukerak eskuratzeko sententzioa izan dute.

Itxaropenei dagokienez, bi helburu argi ditu: laguntza aprobetxatzea erabaki estrategiko hobeak hartzeko, Bikaine sendotuz eta modu jasangarrian haziaraziz. Inkubagailuko beste proiektu batzuekin konektatzea, horien ondo egindakoetatik eta akatsetatik ikasteko, lankidetzak esploratzeko eta, aldi berean, Bikainerekin bidean ikasten duen guztia emateko.

**“BIKAINA ESPERIENTZIA
PERTSONALAREN
KONBERGENTZIATIK,
KREATINAREN ERABILERA
BABESTEN DUEN EBIDENTZIA
ZIENTIFIKOTIK ETA ATLETEN
BALIDAZIOTIK SORTU ZEN.”**



Galde

Analytics

Datuak aktibo estrategiko bihurtzeko artea, denbora errekorrean

Egungo panorama digitalean, erakunde asko borrokan ari dira duten informazio kopuru izugarria balio ukigarri bihurtzeko. Hor sartzen da jokoan **Galde**, datuetan berrikuntza egiten duen enpresa bat, helburu argi bat duena: erakundeei ideia abstraktuak datu produktu erreal, gobernatu eta berrerabilgarri bihurtzen laguntzea.

Bere ikuspegia ez da aholkularitza tradizionalera mugatzen; taldeak estrategiak, arkitekturak eta prototipoak diseinatzen ditu, berrikuntza datuaren gobernuarekin eta negozioarekin lotzen dutenak. Horretarako, diziplina anitzeko talde bat dute, ingeniartzaren, analitikaren eta finantzen arteko profil hibridoak konbinatzen dituenak, adimen artifizialean, gobernantzan eta produktu digitalen garapenean funtsezko esperientzia emanez.

BERRIKUNTZA ETA ABIADURA: MVP60 METODOA

Konpainiak garapen-denbora tradizionalak hausteko egin duen apustu nagusia bere lan esparru propioa da: **MVP60** metodoa. Ko-sorkuntza sistema hori gai da datuen

edo adimen artifizialaren produktuen ideiak ekoizteko prest dauden prototipo bihurtzeko bi hilabete eskasean.

Filosofia da startup baten gauzatze-abiadura goi-mailako aholkularitza-enpresa batengandik espero den zorroztasun teknikoarekin lotzea. Hala ere, bezeroaren independentzian datza gakoa. *“Bezeroaren taldeekin lan egiten dugu, ez haientzat. Gobernantza-printzipioak lehen egunetik txertatzen ditugu, sortutako edozein arkitektura edo eredu gardena, eskalagarria eta kontrolagarria izango dela bermatuz”, esan digu bertako CEOak, Beñat Galdósek.*

Metodologia horrek funtsezko hiru zutaberen gainean eraikitzen du bere lehiarako abantaila: emaitza azkarrak kalitaterik sakrifikatu gabe,



bezeroak kontrol estrategikoari eusten dion benetako lankidetzak, eta trazabilitatea eta betetze-maila lehen prototipotik bermatzen dituen gobernantza. Irtenbide itxiak saltzen dituzten merkatuko beste eragile batzuek ez bezala, enpresak denboran zehar eskalatu eta eutsi ditzakeen barne gaitasunak eraikitzean zentratzen da Galde.

NAZIOARTEKO HEDAPENA ETA FINANTZA-SENDOTASUNA

Galde Analytics hedapen-fase beteak dago, bere finantza-oinarria sendotu eta lehen mailako enpresetan duen lan-eredua baliozkotu ondoren. Gaur egun, enpresak adimen artifizialean helduak diren merkatuetan jartzen du arreta, esaterako, Erresuma

Batuan, Frantzia edo Singapurren. Beñat Galdósen arabera, **Singapore FinTech Festival**etik igaro berri den honetan, lehentasuna da bere metodologia esportatzea epe laburrean benetako emaitzak bilatzen dituzten nazioarteko erakundeetara aliantza estrategikoen bidez.

“ENPRESAK
IA MERKATU
HELDUETAN JARTZEN
DU ARRETA, HALA
NOLA ERRESUMA
BATUAN, FRANTZIAN
ETA SINGAPURREN.”

SUSTRAIAK EKOSISTEMA EKINTZAILEAN

Bere hazkundera ez litzateke ulertuko tokiko berrikuntza-ekosistemarekin duen loturarik gabe. Bilboko

DeustoKabi bezalako guneak funtsezkoak izan dira bere lehen urratsetarako, **Eusko Jaurlaritzak** bultzatutako Gazte Ekintzailletza

 **GALDE**

GALDE ANALYTICS S.L.

Deusto Kabi

ESIDE eraikina 4. pisue
Unibertsitate etorbidea 24
48007 BILBAO (Bizkaia)



*Informazio gehiago
hemen aurki dezakezu:*

“Unibertsitatearekiko gertutasunak gazte talentuarekin konektatzeko aukera ematen die.”



Programaren laguntzari esker eta **Deustuko Unibertsitatearekin** lankidetzan.

Unibertsitate-ingurunearekiko hurbiltasunak aukera ematen die ikuspegi analitiko, sortzaile eta humanista

duen talentu gazte batekin konektatzeko, eta nahasketa hori funtsezkotzat jotzen dute benetako inpaktua sortuko duten produktuak diseinatzeko. Bide horretan, zenbait erakunderen (esaterako, **Beaz** eta

DeustoKabi) laguntza estrategikoa erabakigarria izan da, baita ICEXen nazioartekotze-programak ere, merkatu globalera irekitzea errazten eta lurraldetik kanpo duen presentzia indartzen ari baitira.



ZITEK, 25 urtez unibertsitatean ekintzailtza sustatzen

Zitek, EHUren Bizkaiko Campuseko ekintzailtzari laguntzeko programak 25 urte bete ditu unibertsitate-ingurunean ekintzailtzaren kultura sustatzen eta enpresa berritzaileen sorrera bultzatzen.

2000. urtean sortu zen, EHUren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta BEAZen arteko lankidetzari esker. Unibertsitate-eremuan proiektu berritzaileen eta/edo oinarri teknologikoko proiektuen haztegi bihurtzeko sortu zen, ikasgeletan sortutako ezagutza gizartera transferentzia bultzatzeko.

Zitekek unibertsitatean sortutako ikerketa-emaitzak ustiatu eta transferitzea ahalbidetuko duten enpresak sortzearen alde egiten du. Horrez gain, kultura ekintzailea sustatu nahi da, unibertsitate-komunitateko kideak espirtu ekintzailean hezten eta gizartearen egungo erronkei irtenbideak bilatzen lagunduko duten jarduerak eginez.



Bioinnovative Solutions

Mikroalgen iraultza jasangarria

Bioinnovative Solutions, S.L., komertzialki **Poliedra**, izenez ezaguna, panorama bioteknologikoan misio argi batekin sartu da: mikroalgetan oinarritutako aplikazio berriak ikertu eta garatzea. Mikroorganismo horiek “*zientzia, diseinua eta ongizatea integratzen dituzten soluzio eta produktu jasangarriak sortzeko*” duten ahalmena aztertzea da helburua.

Mikroalgetan oinarritutako ikuspegia estrategikoa da; “*etorkizuneko petroliotzat*” hartzen dituzte, baina ahalmen handiagoa dute. Horien osaera baina ahalmen handiagoa dute. Horien osaera moldakorrek petrolioaren deribatuak ordeztu daitezke hainbat industriatan. Gainera, abantaila hauek ditu: CO₂ harrapatzen du, hainbat ur-motatan landu daiteke eta ez da nekazaritza-lurzoruekin lehiatzen. “*Poliedran, dagoeneko ezaguna denetik haratago joan nahi dugu: mikroalgak inoiz egon ez diren eremuetara hurbildu, eta jendeari esperientzia paregabeak eskaini, formatu ez-konbentzionalen bidez*”. Gaur egun, startupak bere hazkuntza-teknologia garatu du, eta novel foodekin eta kosmetikarekin lotutako proiektuetan lan egiten du, **María Margarita Arenas Plata fundatzaileetako batek esan digunez.**

Carlos Andrés Mariño Quintero bazkidearekin batera Poliedra sortu arteko bideak berebiziko eraldaketa behar izan zuen. **ZITEK** inkubagailuan sartu aurretik, biek lanaldi osoko lanak eta **EHU**ko master ikasketak uztartzen zituzten (Carlosek Proiektuen Kudeaketan, eta María Margaritak Ekintzailtza eta Enpresa Zuzendaritza Masterrean —MBAe3—). Master horretan, María Saiz, Goizalde Hernando eta Jon Hoyos irakasleei esker, “*ezagutu zuten sakon Euskadiko ekosistema ekintzailea*”. ZITEK deskubritu zuten, **Bizkaiko Foru Aldundiak** eta **BEAZ**ek bultzatutako EHUko inkubagailua.

“*Biok atzerritarrak gara, eta, gure jatorrizko herrialdean bizi ginenean, proiektu batzuk garatu genituen, baina eskala txikiagokoak; izan ere, gure hirian eta unibertsitatean ez*


zegoen hemengoa bezalako mailako ekosistemarik, ezta inkubagailu-programarik ere”.

María Margarita Arenas

Platak adierazi digunez, aurrera egitea eta aukera aprobetxatzea erabaki zuten; eta esperientzia hori “benetan aberasgarritzat” jotzen du “*jasotako babes handiari*” esker.

Lorpenak berehala iritsi ziren. Hasierako ideia batekin hasi ziren, eta horrek **Enkarterrin** bioekonomia sustatzeko ekimen berritzaileen lehiaketa (**Hazi Fundazioak** finantzatua) irabaztera eraman zituen. Bultzada hori funtsezkoa izan zen “*gure hazkuntza-teknologia propioaren garapenean lehen urratsak emateko*” eta **Laugar Brewery** garagardogileak efluenteetan hazteko aurretiazko protokolo bat ezartzeko, **EHU**rekin, **Plentziako Itsas Estazioarekin** (PIE) eta **Sopuertako San Viatorrekin** lankidetzan.

Ondoren, zenbait aitorpen batu zituzten, esaterako, **Gaztenpresa MBAe3 saria** —EHUko Ekintzaitelza Masterreko ikasleei emana— eta **Think Big saria** —unibertsitate bereko ikasleei zuzendua—. Sari horiei esker, lehen prototipoak garatu ahal izan ziren, eta, modu erabakigarrian, “*ekosistema ekintzaileko eragile ugariarekin konektatu ahal izan genuen; haiekin izugarri kolaboratu eta*



“GURE MISIOA: MIKROALGETAN OINARRITUTAKO APLIKAZIO BERRIAK IKERTZEA ETA GARATZEA.”

ikasi dugu”, esan digu María Margarita Arenas Platak.

Kofundatzaileak inkubagailuak bidaia horretan izan duen funtsezko zeregina azpimarratu du. “*Esperientzia hori ez zen posible izango ZITEKen babesik gabe, hasieratik lagundu baitigu era guztietako laguntza emanez*”. Laguntzen zerrenda luzea da:

lan-eremuak, **BAT Dorreko** postuak, eta baita honako hauek ere: prestakuntza, ekitaldiak, networkinga eta “*kontaktusare baliotsu baterako irispidea eta baita laguntza emozionala ere*”.

ZITEKen egoteak ere egunean mantendu ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren eta BEAZen programei buruz. Horri esker,



María Margaritak Prestaekin ikastaroan parte hartu ahal izan zuen; eta gaur egun mentoretza-programaren parte da, *“gure proiektuaren alderdi estrategikoak indartzeko eta baliozkotze-estrategia hobea diseinatzeko funtsezkoa”*, azaldu digu.

Bizitako esperientziaren ikuspegiarekin, Bizkaiko




BIOINNOVATIVE SOLUTIONS
Zitek Portugalete

María Díaz de Haro 68 behea 2
48920 PORTUGALETE (Bizkaia)



*Informazio gehiago
hemen aurki dezakezu:*



“Hainbat sari irabazi dituzte, eta horri esker garatu ahal izan zituzten lehen prototipoak.”

proiektu berrientzako duen aholkua argia da: *“beren ideia ahalik eta lasterren baliozkotu dezatela”*. Oinarri teknologikoko enpresetan, bioteknologian adibidez, prozesuak motelak, konplexuak eta oso arautuak direla onartzen du. *“Hala ere, funtsezkoa da laster egiaztatzea proposamenak benetan merkatuaren behar bati erantzuten dion. Batzuetan, gure produktu edo zerbitzuarekiko pasioak bultzatzen gaitu, baina gogo*

bizia ez da beti eskaera bihurtzen”.

Praktikan ikasitako ikasgaia da. *“Teorian hori bagenekien ere, praktikan ez genuen hasieratik aplikatu; eta, atzera egin ahal izango banu, egingo nukeen lehen gauza izango litzateke”*. María Margarita Arenas Platak ziurtatu digunez, bere gomendioa *“aholkatzen uztea”* da, ez badugu argi nola egin; garaiz orientatzeak *“alde handia eragin baitezake”*.

Taldea sendotu egingo da, halaber, akordioak formalizatzeko zain dauden bi aholkulari zientifikorekin. Eta ambizioa ez da geldituko: *“2026ra begira, BFAko Enpresa Berritzaileak Sortzeko Programaren (BEAZek kudeatzen duena) 1. arlora aurkezteko asmoa dugu, itsas bioluminiszentzian zentratutako proiektu bereziki berritzaile eta liluragarri batekin”*, esan digu María Margarita Arenas Platak.

ENPRESA BERRITZAILEAK SORTZEA

2026/02/02tik 2026/02/27ra

Enpresa-proiektu berritzaileak, enpresa berritzaile berriak, ekintzailetza-ekosistemaren dinamizazioa eta azelerazioa garatzeko diru-laguntzen programa.

Ekonomia Sustapenerako Sailaren Bulego Birtualaren bidez:

www.bizkaia.eus/Sustapena-OficinaVirtual

Horretarako, sinadura elektronikoa izan behar duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA), eta B@kQ ziurtagiri elektronikoa baten bidez sartu, gure Obispo Orueta, 6. zenbakiko bulegoetan eska daitekeena.

beaz@bizkaia.eus

1. arloa: Enpresa-proiektu berritzaileak garatzea

Pertsona ekintzaileak edo enpresak

Enpresa-proiektu berritzaileen bideragarritasuna aztertzea, enpresa edo negozio-unitate berriak sortzearena lehendik dauden enpresetan.

2. arloa: Enpresa berritzaile berriak sortzea

Enpresa berritzaile sortu berriak gutxienez 2 enplegu izatea

Bizkaian enpresa berritzaile berrien sorrera sustatzea.

3. arloa: Ekintzailetza-ekosistema dinamizatzea

Gutxienez lanaldi osoko lanpostu bat duten enpresa liderrak eta bere lana Bizkaian egin dezala

Bizkaiko enpresa liderren eta Bizkaiko ekintzailetza-sistemaren arteko elkarrekintza erraztea.

4. arloa: Azelerazioa

EJZn 2020ko urtarrilaren 1ean edo ondoren alta eman duten enpresak

Enpresen hazkundea bizkortzea, jarduera ekonomikoa sortzeari dagokionez.


5. arloa: Startup azeleragailuak erakartzea

























Enpresa azeleratzaile pribatuak

Tokiko kosistema ekintzailea indartzen eta dinamizatzen laguntzea, startup-ak, talentua eta nazioarteko izaerako proiektuak bizkortuz.



	AgriX AI Agrix Eco @agrixlabs.com +34 627 553 533
	AOTECH AOTECH @aotech.es +34 621 004 487
	ASIMOB ASIMOB @asimob.es
	Auziker @auziker.com +34 617 279 254
	AvanzaBio @avanzabio.com +34 946 859 616
	Baisma innova @baisma.com
	Belasai @belasai.es/es
	Berritzaea @berritzaea.com +34 946 472 497
	Bidagua @bidagua.es +34 669 625 327
	Bikaine @bikaine.com +34 638 273 753
	BioComputing @biocomputing.es +34 678 408 654
	Blue Connecting Emotions @bluece.eu
	Brand & Roll +34 680 480 839
	Bromalgae @bromalgae.com +34 688 773 432
	Carnegie Clean Energy @carnegiece.com +34 946 953 089
	Ceata @ceataingenieria.com +34 946 291 183
	Cibersare @cibersare.com +34 944 580 462
	Citystock @citystock.es
	Cloudtainer @cloudtainer.eu
	Coometas @coometas.com +34 613 306 221
	Creativitic innova @creativitic.es +34 629 443 386
	Delicium +34 665 864 695
	Drone by Drone @dronebydrone.com +34 637 521 158
	Editorial ON @editorialon.es +34 744 404 641
	El Mono @uxuecastrillo.com +34 665 999 858
	Elektrart @elektrart.com +34 647 391 171
	Envitec Biogas Iberia @envitec-biogas.com +34 672 006 363
	FLF - From Lab to Field @fromlabtofield.com +34 603 817 078

	Fuelium @fuelium.tech +34 644 914 445
	Giideba @giideba.com +34 613 288 465
	Glycoscience @glycoscience.es +34 946 068 283
	Gura @gurathedrop.com +34 659 246 463
	Hawk Biosystems @hawkbiosystems.com +34 946 40 55 20
	Heit solutions @heit.ai/ +34 637 076 494
	House of Soiree @basque.soir.ee +34 645 176 709
	Innitius @innitius.com +34 944 987 052
	Investiga Salud @investigasalud.com +34 646 259 459
	Itsas Bio Design +34 646 972 368
	Jimm Monitoring @jimmonitoring.com +34 699 060 766
	Labsland Experimentia @labsland.com
	Lipiwell @lipiwell.com +34 629 475 207
	Lou Ingenieria @louingenieria.com +34 660 088 872
	M55 +34 629 074 118
	Mai CDMO @mai-cdm.com +34 688 609 934
	Mezuticcs @mezuticcs.es +34 600 560 426
	Mikrobiomik @mikrobiomik.net +34 944 540 166
	Msolutions +34 690 256 347
	Neucurrent @neucurrent.com +34 659 390 864
	Nitid @nitid.ai +34 609 907 500
	Novargi @novargi.com +34 688 728 562
	Pappstor @pappstor.com +34 692 144 677
	Poliedra @poliedra.es
	Profesiolan @profesiolan.com +34 688 647 670
	Quest Implants @questimplants.com +34 946 672 165
	Roiward @roiward.io +34 659 786 212

	Roseo @roseo.es +34 623 366 769
	Samylabs @samylabs.com +34 687 549 979
	Samira DTX @samiradtx.com +34 663 843 390
	Sisu Bienestar +34 666 212 854
	Solargic @solargic.net +34 615 926 488
	Spouted Bed Solutions @sbsprocess.com +34 673 851 511
	Syngoi Technologies @syngoi.com +34 946 096 309
	Tawity @tawity.com +34 688 869 047
	TAD @theartofdiscoverysl.com +34 946 941 421
	Tormesh Solutions @energia.tormesh.com +34 679 309 081
	Trodexa @trodexa.com +34 616 869 760
	Universal Omics @universal-omics.com +34 667 174 329
	Universo Marziano @marzianos.com +34 695 046 292
	Ventijet +34 667 008 105
	Vitrocaulis Plant Innovation @vitrocaulis.es
	Volta Control @controledificacion.com +34 659 895 727
	Vrainhax @vrainhax.es +34 657 735 637
	Weco Art @wecoart.com +34 623 369 734
	Welltech @welltechelectronics.com +34 944 353 129
	World Mapping Solutions @worldmappingsolutions.eu +34 615 757 733
	Yuit @yuit.eu +34 747 476 394
	Yoid @yoid.es +34 647 365 147
	Zenialabs @zenialabs.com
	Carbon Zero @zerocs.eu
	Zimergreen +34 629 015 866
	Zinnia Ediciones @zinniaediciones.com +34 644 524 673
	Zirkular Basq @basqcompany.com +34 644 357 690